

Euskeraren erabilera mundu globalizatu batean

Iziar Basterretxea

Deustuko Unibertsitatea

“Gaur egun gizartean eragitea eta emaitza positiboak lortzea ezinezkoa da, modu isolatuan jardunez gero. Erakundeak, ekonomiak eta gizarte osoak gero eta elkarri lotuago dauden honetan, gure ekinzek beste zenbait ekintzatan eragina sortzen dute, eta beste batzuen jasotzen, nahiz elkarrengandik oso urruti dauden ekintzak izan. Horregatik, gaurko gure munduan, gure lanlekuan eragina nola sortu litekeen pentsatu aurretik beste galdera sakonago bat egin behar diogu, ezinbestean, geure buruari: gizarte global baten bizitzeak zer dakar berekin?”¹

Azken galderak sortu dizkidan gogoetak azaldu baino lehen, zehaztu ditzadan lan honen mugak eta helburuak.

Lan honen ikuspegia soziala da, ez linguistikoa. Hizkuntzaren edo hiztunen berezitasunak ez ditu aztertuko, ez eta hizkuntzaren erabile-

¹ Senge, Peter M. (2003): “Creating desired futures in a global society”. Honoris Causa Doktore izendatzeko ekitaldiko hitzaldia. Bilbao. Deustuko Unibertsitatea. 35. or.

ra sustatzeko baldintza linguistiko/soziolinguistikoak ere. Azterlan honek testuinguruan ipiniko du begirada: gaur egun munduko edozein pertsona bizi den gizartearen berezitasunak, zeintzuk dira? Zer aukera, aldaketa, oztopo... sortzen dira hizkuntza jakin bat erabiltzeko ala ez erabiltzeko? Zein dira gizartearen kontuan hartu beharreko ezinbesteko ezaugarriak?

Modernitatea eta globalizazioa dira aurkeztuko ditudan kontzeptu nagusiak. Giza zientzietan oso kontzeptu eztabaidatuak diren arren, oro har aitortzen zaizkien oinarriko ezaugarriak aukeratu ditut, zeren eta nire lehen helburua kontzeptuak eurak argitzea baino kontzeptuoi atxikitzen zaizkien berezitasunek euskararen erabileran sortu ditzaketen ondorioez hausnartzea baita.

Beraz, fenomeno horiek ulertzeko eta definitzeko modu desberdinak hartuta ondorio desberdinetara helduko garen ustetan, hortxe azterlan honen bigarren helburu nagusia: iritziak eskaini eta eztabaidari bidea ematea.

1. MODERNITATEA

1.1. Klasikoen Ikuspegia

Zentzu orokorrean, modernitatea esaten zaio Europan gizarte feudalaren ostean hasi zen mugimendu historiko eta kulturalari. Bere berezitasunak eta aurreko gizarteekiko ezberdintasunak aztertzeko, ikuspegi ugari izan dira historiaren, politikaren zein gizartearen aldetik.

Soziologian klasikotzat jotzen diren egile nagusiek Modernitatea izan dute aztergai, bakoitzak haren muina definitzeko iritzi ezberdina eman duen arren. Horrela, bada, K. Marxen ustetan modernitatea sistema kapitalistak eratzen zuen; M. Weberren ustez arrazionaltasunaren hedapena zen modernitatea, eta harekin batera burokraziaren eta era-

kundeen nagusitasuna; E. Durkheimen ikuspegian, berriz, modernitatearen berezitasun nagusia lan-banaketaren hedapenak sortutako elkartasun organikoa zen, elkartasun hau beste bi ezaugarri lotuta agertzen zelarik: taldearen kontzientziaren ahulezia, eta bestetik *anomia* edo arau zuzena ez ezagutzea, eta honek sortzen duen ziurtasun eza².

Klasikoa ere bada Tonniesek 1887an *Gemeinschaft und Gesellschaft* liburuan egin zuen azterketa. Horren arabera, Modernitateak Komunitatetik Gizarterako aldaketa dakar. Ondoko taulan ikus daiteke aldaketa ez dela kuantitatiboa bakarrik baizik eta, batez ere, kualitatiboa³.

	KOMUNITATEA Gemeinschaft (talde primarioak)	GIZARTEA Gesellschaft (talde sekundarioak)
Hastapena	Borondate naturala	Borondate arrazionala
Gizabanakoa	Helburua bere osotasunean	Bitartekoa, helburuak lortzeko
Zuzenbide modu nagusia	Familiakoa	Kontratuzkoa
Oinarritzko harremana	Laguntasuna, ahaidetasuna	Hartu eta eman. Kalkulu arrazionala
Kontrol sozial mota	Ohiturak, erlijioa	Legeak, iritzi publikoa
Maitasunezko osagarria	Oinarritzkoa	Indiferentea
Lan-banaketa	Txikia	Funtzionala eta konplexua
Talde paradigmaticoak	Familia Herrixka	Bankua, Eliza Hiria, Estatua

² K. Marx (1867): *El Capital*; E. Durkheim (1893): *La división del trabajo social*; M. Weber (1922): *Economía y sociedad*; idazlan horietan azaltzen dira aipatutako ikuspegiak. Lehenengo argitalpenen datak ematen ditut.

³ Aurkezten den taula González-Anleo, Juan (1994): *Para comprender la sociología*. Estella (Navarra) Editorial Verbo Divino (3. argitalpena), 134. orrialdean ikus daiteke. Baita ere, euskaraz, Horton & Hunt (1994): *Soziología*. Bilbao. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, 185-188 or.

Komunitatean: harreman gehienak pertsonalak edo usadiozkoak dira; taldea eta taldearen interesak gizabanakoarenak baino garrantzitsuagoak dira; taldeek pertsonaren alderdi eta beharrian guztiak asetzen dituzte; pertsonen bizitzak aurreikusi egin daitezke, lehenagotik finkatutako ziklo batean kokatzen direlako. Komunitate tradizional hau ordezkatzera dator kontratuko gizartea.

Kontratuko gizartean: ez dira garrantzizkoak ez maitekortasun pertsonala ez eta ohiko eskubide edota betebeharrak; pertsona eta bere interesak taldearenak baino garrantzitsuagoak dira; pertsona baten bizitza-beharrak asetzeko antolamendu ezberdin asko dira beharrezkoak; gizabanakoek planifikatu behar dute euren bizitza, berau ez baitago alde zuzenetik erabakita; pertsonen arteko harremanak negoziaketa bidez eraikitzen dira eta idatzizko akordioetan zehazten dira.

1.2. Gaur egungo ikuspegia⁴

Gai honen inguruan egun diharduten soziologoek artean Anthony Giddens dugu⁵. Bere ustez, mundu modernoa kontrol barik doan mundua da. Bertan aldaketa soziala gero eta bizkorrago gertatzen da, eta sakonago eragiten die lehenagoko portaera-molde sozialei.

⁴ Teoria soziologikoaren historian modernitatearen eztabaidei buruzko aurkezpen orokorra ikusteko, Ritzer, G. (2002): *Teoría sociológica moderna*. Madrid. McGraw-Hill/Interamericana de España. 519-557 or. Interesgarriak ere badira Beck, U. (1998): *La sociedad del riesgo. Hacia una nueva modernidad*. Barcelona. Paidós. Berger, P.&Berger, B. & Kellner, H. (1979): *Un mundo sin hogar. (Modernización y conciencia)* Santander, Sal Terrae.

⁵ Aurkezpen honetarako lan hauek erabili ditut: Giddens A. (2000): *Un mundo desbocado. Los efectos de la globalización en nuestras vidas*. Madrid. Taurus. Eta, (1995) *Modernidad e identidad del yo. El yo y la sociedad en la época contemporánea*. Barcelona. Península.

Egile honen arabera, hiru dira bizitza sozial modernoaren bizkortasuna azaltzen duten osagarriak: lehenengoa *espazioa eta denboraren arteko banaketa*, bigarrena *erakunde sozialen desiltzapena (desenclave)*, eta hirugarrena *erreflexibitatea*. Ikus ditzagun, labur bada ere, banan-banan.

- *Espazioa eta denboraren arteko banaketa*. Ikuspegi sozial batetik argi dago denbora eta espazioa gauza ezberdinak direla, baina modernitatearen aurreko gizarteetan biak (noiz eta non) agertzen ziren erabiltzen zituen komunitatearen kokapenarekin lotuta. Egia da kultura guztietan denbora neurtzeko eta espazioa kontrolatzeko moduak (egutegiak eta mapak) landu direla, baina pertsona gehientzat espazioa zein lekua euren eguneroko bizitzaren lekuagaz eta zereginakaz lotuta egon dira.

Modernitatean, aldiz, norberaren lekuarekiko lotura hori apurtu egiten da eta espazioa zein denbora “hustu” egiten dira. Ondoren, hainbat modutara bete daitezke. Horren adierazle dira mundu osoko ordutegia eta munduko mapak. Gaur egun munduko biztanle guztientzat “lehen” edo “historia” dioguna, zelan edo halan, bat bakarra da, eta berdin gertatzen da denborarekin ere. Esaterako, *XXI. mendea* denontzat da esanguratsua; mundu osoko albisteak berehala heltzen zaizkigu, berdin dio “non” gertatu diren; ikasi ere *on line* egin dezakegu, berdin dio “non” eta “noiz” egin nahi dugun, eta ikasketari guztiak egon daitezke leku zein une ezberdinetan; lehen “iluntzean” oheratzen ginen, orain aldiz “hamarretan”; lagunekin “bazkalostean” gelditu beharrean “lauretan” gelditzen gara, ... eta horrela bada, Tarzanek “makiltxu bien gerizpeek bat egiten dutenerako bueltan izango naiz” esaten zueneko sasoia urrun da, urruntasun espazio-denborazkoa.

- *Erakunde sozialen desiltzapena (desenclave)*. Hau da, giza harremanak ere “deslekuratu” egiten dira. Prozesu honetan beste bi prozesuk ere parte hartzen dute: *seinale sinbolikoak* eta *sistema expertoak*, biak ere biak sistema abstraktuak dira.

Seinale sinbolikoen adierazle nagusia dirua da, Giddensen esanetan, diruaren bidez *edozeinegaz* eta *edonon* finkatu daitezkeelako harremanak, dirua aldi berean egon litekeelako gure kontuan eta beste batzuenan, etorkizunean irabaziko dugun diruari esker gaur bertan lor dezakegulako zenbait gauza,...

Beste alde batetik, *sistema expertoak* ditugu. Sistema hauek gizarte-bizitzaren arloetako bakoitzari dagokion jakintza-sistemak dira, eta norbanako batengandik beste batengana transmititu litezkeen prozedura-arauen menpe daude. Sistema hauen berezitasun nagusia zera da, euren balioa, onarpena eta egokitasuna ez dagoela, ez praktikatzen dutenen kontrolpean, ez eta bezeroenaren ere. Gaur egun sistema horiek inguraturik bizi gara: osasuna, hezkuntza, jatekoa, arropak, irakurketak, musika, antzerkia, kirola... bakoitzak bere *sistema expertoa* du, eta gure bizitzaren alde guztiak guk kontrolatzen ez ditugun erabaki eta funtzionamendu-sistemek zeharkatzen dituzte. Argi gera dadila sistema hauek ez direla gure bizitzaren kanpo-inguruetan kokatzen, bai-zik eta barru-barruraino heltzen, eta hortaz gure *ni* gordeena ere antolatzen zeresana dutela.

Bestetik, sistema hauek *konfiantzagaz* oso lotuta daude. Konfiantza, neurri baten fedearen antzera ulertuta: ezin ditugu sistema horiek ikusi, baina sinetsi egiten dugu eurengan, eta *ni*-aren ziurtasunarekin lotzen dira. “Medikuak esan badu...”, edo abokatuak, monitoreak, bankuak... Adibide gisa, pertsona bat baino gehiago ezagutzen dut VISA txartela erabiltzen ez den herrialde-etara bisitan ere joan nahi ez duena, horrelako lekuek ez dietelako konfiantzarik sortzen: “edozein gauza gerta dakizuke horrela-

ko leku batean” diote. Jakina, “edozein gauza” “edozein lekutan” gerta dakizuke, baina modernitatearen *ni*-aren ziurtasuna era horretako *iltzeek* josten dute.

- *Erreflexibitatea*. Espazioa eta denboraren arteko banaketak, gehi erakundeen *desiltzapenak*, tradizioetatik askatu du modernitatearen eguneroko bizitza. Modernitatean, egiteko moldeak ez daude aldez aurretik emanda, aldiz, pertsona bakoitzak aukeratu behar ditu, eta aukeraketa horregaz lotzen du erreflexibitateak, hots, ezagutza eta informazio berrien eraginez bizitzaren alde guztiak etengabe pentsatu eta birpentsatu behar dira. Honek, arinago azaldutako *konfiantza* fenomenoaren aurka, etengabeko beldurra eta zalantza sortzen ditu *ni* modernoarengan. Konfiantza–ziurtasuna eta arriskua–zalantza modu berezian eta esanahi berezietz ematen dira modernitate-aroan. Giddensen berbetan, “Behin agertuta, modernitatearen eta sakoneko zalantzaren arteko harreman osoa ez da filosofoentzat bakarrik kezagarria izango, gizaki arruntarentzat ere beldur existentzialaren iturri da”⁶.

Gainerako zenbait ikuspegik, modernitatearen ezaugarriak adierazteko beste kontzeptu batzuk aipatzen dituzte, hala nola *Aniztasuna* eta *Sekularizazioa*⁷.

⁶ Ibidem (1995) 32. or. Erreflexibitatearen ideiarekin lotuta bi kontzeptu bereizi behar dira: “arriskua” eta “peligroa”. Modernitatearen “arriskua” ez da ohiko gizarteen mehatxu edo “peligroak” bezalakoa. Modernitate aurreko gizarteetan bizitza aldez aurretik eratuta zegoen eta gertakizunen harira sortzen ziren desorekak onartu egiten ziren, naturalizat hartzen zirelako, baina ez zegoen aldez aurretik finkatutako helburuekiko erreferentziarik. Modernitatean, aldiz, etorkizuna aurreikusi egiten da, norbanakoak aldez aurretik aukeratutako helburuak eta itxaropenak ditu, eta hortaz, arriskua, lortu nahi den etorkizun horrekiko arrakastarekin lotzen da. Arriskuaren ideiari buruz ikusi 4. oharrean aipatutako Beck, U. *La sociedad del riesgo* izeneko liburua ere.

⁷ Puntu honetan Velasco, D. (1997): *Pensamiento político contemporáneo*. Bilbao. Universidad de Deusto. 67-75. or. Eta Bell, D. (1977): *Las contradicciones culturales del capitalismo*. Madrid. Alianza Universidad, erabili ditut gehien bat. Alda-

- *Aniztasuna*. Modernitatearen aurreko gizarteetan moral bakarra zegoen, oinarri erlijiosotik sortutako moralak, eta gizartearen diferentzia sozio-ekonomikoak agertu arren gizarte-antolamendua erabat onetsita zegoen, kide guztiek partekatzen zuten munduari buruzko ikuspegi bakar hura. Aniztasuna kanpoan zegoen, hau da, gizatalde guztiek ezagutzen zituzten gauzak ezberdin egiten eta ulertzen zituzten beste talde batzuk, eta hortik sortzen zen talde ezberdinen arteko elkarbizitza arautzearen beharra. Baina gizarte modernoetan aniztasuna kanpoan eta barruan ere badago, mundua ikusteko modu bakarra desegin delako, eta modu horri eusten zioten erakundearen garrantzia ere bai. Gaurko munduari buruzko ikuspegia norberak landu behar du eta horrek gizartea ikusteko modu ezberdinetara darama, eta ondorioz, ezberdintasunak kudeatzeko beharra talde barrura ere badator.
- *Sekularizazioa* ulertzeko hainbat modu dauden arren guretzat interesgarriena zera da, arloen *bereizketara* daramana, hau da, giza ekintza gauzatzean sortzen diren arloak bereiztera daramana. Ekintza-arlo bakoitzaren autonomia eta berezko arrazionaltasunaren garapena bultzatzen duen sekularizazioa dugu hizpide. Politika, Ekonomia, Kultura eta Erlijioa, bakoitza printzipio edo ardatz baten inguruan antolatzen da. Prozesu honen lehenengo pausoa Estatuak eta Elizaren arteko banaketa izan zen, eta horregatik erlijio-askatasunari esan izan zaio *lehenengo askatasuna*. Lehen banaketa hartatik abiatu eta zientzien eta tekniken garapenaren eskutik, beste arloak ere banatuz joan dira.

keta hauetaz ikus ere Touraine, A. (1994): *¿Qué es la democracia?*. Madrid, Temas de Hoy. Liburu honetan Touraineak hedatu egiten ditu 1993an *Crítica de la modernidad*, (Madrid, Temas de hoy) lanean landutako gaiak.

⁸ Ibidem. Bell, D., 23-26. or.

Ildo horretan sakonduz, D. Bellek⁸ hiru arlo nagusi nabarmentzen ditu gaurko gizartean:

- Lehenengo arloa *teknoekonomikoa* da, berau gorpuzten duen hastapena *arrazionaltasun funtzionala*, hastapen egituratzailea *ekonomizatzea*, eta balioaren neurria *erabilgarritasuna*.
- Bigarren arloa ordenu *politikoa* da: justizia eta botere sozialen arloa, indarraren erabilera zuzena kontrolatzen duena. Gorpuzten duen hastapena *legitimitatea* da, oinarrizko balioa *berdintasuna*, eta berari lotuta *partaidetza*. Interes ezberdinei erantzun behar zaienez, erabakiak *akordioz* edo legez hartzen dira.
- Hirugarren arloa *kulturarena* da. Bellek dio adierazpen sinbolikoen arloa dela. Historikoki erlijioagaz oso lotuta egon da, eta bertan aurkitzen dira giza existentziaren esanahia harrapatzeko eta adierazteko ahaleginak. Arlo hau modernitatearen oinarrizko ustarekin lotuta dago, hots, gizartearen oinarrizko unitatea ez dela ez taldea, ez gremioa, ez tribua ezta hiria ere, baizik eta giza-banakoa.

Bellek dio gizartearen egitura-gatazken iturria arloon hastapenen arteko ezberdintasunetan dagoela, hots: burokrazia eta hierarkia hastapenak egitura teknoekonomikoan, baina berdintasuna eta partaidetza ordenu politikoan, eta *ni*aren eta pertsona *osoaren* indartzea eta garapena bilatzea kultura arloan. Horrela gertatzen dira arloen arteko tirabirak eta interes kontrajarriak.

2. GLOBALIZAZIOA

2.1. Globalizazioaren gaineko eztabaida

Bibliografia ugaria dagoen arren, globalizazioaren esanahi sakonaren inguruan adituak zein hiritar xumeak ezadostasunean murgildu-

ta gaude. Batzuentzat kontzeptu guztiz berria da eta beste batzuentzat aspaldiko prozesuaren gaurkotasuna baino ez da; batzuk abantailak defendatzen dituzte eta globalizazioaren alde agertzen dira, baina beste batzuk desabantailak azpimarratzen dituzte eta globalizazioaren aurkako mugimenduetan dihardute⁹.

Giddensen berbetan, “Globalizazioa sakonki ari da gure bizimoduak aldatzen. Mendebaldeak zuzentzen du, Estatu Batuetako botere politiko eta ekonomikoaren kutsua du, eta bere ondorioak oso anitzak dira [...] eguneroko bizitzan zein mundu mailan gertatzen diren gertakarietan du eragina. [...] *Eszeptikoen* ustetan, globalizazioaren gaineko huskeria guztiak hori baino ez dira, huskeriak [...] globalizatutako ekonomia ez baita bereziki aldentzen aurreko aroetako ekonomietatik. Beste batzuk, aldiz, *erradikalak* deituko ditudanak, oso ikuspegi desberdina dute: baieztatzen dute ez bakarrik globalizazioa guztiz erreala dela, baizik eta bere ondorioak leku guztietan ikus daitezkeela ere. [...] Bai eszeptikoeak eta erradikalek ere fenomenoaren agerpen ekonomikoak baino ez dituzte kontuan hartzen. Okerra da hori, zeren eta globalizazioa, fenomeno ekonomikoa izateaz gain, politikoa, teknologikoa zein kulturala ere bada. Berarengan, hirurogeiko hamarkadaren amaieran sortutako komunikazio-sistemen aldaketek izan dute eraginik handiena”¹⁰.

⁹ Globalizazioaren garrantzia defendatzen dutenen artean, Castells, M. (1997): *La era de la información*. Madrid. Alianza. Held, D.; McGrew, A.; Goldblatt, D.; Perraton, J. (1999): *Global Transformations: Politics, Economics and Culture*. Cambridge. Polity Press. McLuhan, M. (1998): *La galaxia Gutemberg: génesis del homo typographicus*. Madrid. Círculo de Lectores. Kritikatzen dutenen artean, Hirst, P. Q. Eta Thompson, G. (1996): *Globalization in question: The international economy and the possibilities of governance*. Cambridge. Polity Press.

¹⁰ Giddens A. (2000): *Un mundo desbocado. Los efectos de la globalización en nuestras vidas*. Madrid. Taurus. 16-23. or.

Ondoko taulan Jose M^a Tortosak globalizazioaren alde eta aurka egiten duten hainbat prozesu eta agerpen aurkezten ditu. Egile honek sistema eta maila desberdineko loturak eta elkarreaginak aztertu ditu eta, bere ekarpen guztiak azalduko ez baditugu ere, taula honek balio dezake konplexutasunaren ideia adierazteko¹¹.

MUNDU-SISTEMA: GLOBALIZAZIOA ETA LOKALIZAZIOA

	GLOBALIZAZIOA	LOKALIZAZIOA
Biztanleria	Turismoa: eskaera Migrazioak: eskaintza	Turismoa: eskaintza Migrazioak: eskaera
Sistema ekonomikoa	Finantzak eta merkataritza Multinazionalak	Autokonfiantza eta ekonomia “berdea” Babesa
Sistema kulturala	Multinazionalak Ingelesa	Nazionalismoa Lekuko Hizkuntzak
Sistema militarra	Estatu Batuak Europar Batasuna	Hirugarren Mundua
Sistema politikoa	Zentralizazioa, polaritatea, polizentrismoa	<i>De-linking</i> , desloturaketa

Adibide pare bat baino ez ditugu komentatuko. Lehenengoan, turismoak eta emigrazioek elkarren kontrako noranzkotan eragiten dute, eskaerari eta eskaintzari dagokienez: turismoaren eskaera eta migrazioen eskaintza globalizazioaren alde agertzen dira, turismoaren eskaintza eta migrazioen eskaera, aldiz, lokalizazioaren alde. Hau da,

¹¹ Tortosa, J. M. (1992): *Sociología del Sistema Mundial*. Madrid, Tecnos. 27. or.

turistek eta emigranteek edonora eta edonoiz mugitzeko aukera izan nahi dute, baina eurak jaso behar dituzten taldeak mugimendu horien baldintzak kontrolatzen ahalegintzen dira (sartzeko/ateratzeko epeak, egoteko moduak eta abar kontrolatuz). Bigarren adibiderako hizkuntza hartuko dugu: alde batetik, mundu mailako hizkuntza bat agertzen zaigu, ingelesa, baina bestetik mundu osoan talde ugari lan egiten du nork bere hizkuntza, edo hizkuntzak, babesteko eta erabiltzeko aukeraren alde.

2.2. Globalizazioaren definizioak eta agerpenak

Mieko Nishimizuk, Munduko Bankuko buru exekutiboak horrela deskribatzen du egoera: “Elkarrekikotasunezko sare bateko partaide gara halabeharrez. Ekosistemen elkarrekikotasuna; informazioen, ideien, pertsonen, ondasunen eta zerbitzuen joan-etorri askeago baten elkarrekikotasuna; eta bakearen eta segurtasunaren elkarrekikotasuna. Izan ere, etorkizunaren amaraun bakar batean loturik gaude Lur planetan: ehun hori urratu eta herriren bat bertatik erauzi nahi duten politika eta ekintzek porrot egingo dute ezinbestean”¹²

Ez dugu zertan iritzi baikor honekin bat egin, baina sareen garrantziaz ohartzeko ez dugu askorik arakatu behar. Besterik ez balego ere, gaur bizi dugun ekonomiaren krisiak argi azalaraziko luke munduan gertatzen denarekin lotuta gaudela, nahi eta nahi ez lotuta. Badaude beste hainbat adibide ere, besteak beste Boloniako prozesua eta bere gorabeherak, Interneten hedapena, musikaren eta beste arteen sortzaileen iturriak... eta maila xumeago batean, supermerkatuan egunero aurkitzen ditugun produktuak (Peruko esparragoak, Marokoko lekak, ahuakateak, mangoak e.a.) edota urtaro guztietan mota guztietako fruituak erosi ahal izatea, Txinan egindako ordenagailu

¹² Mieko Nishimizu: “Looking back, Leaping forward”. www.solonline.org

merkeak, Indian jositako Zarako arropa, eta abar luze bat. Zerrenda hau amaitzeko, ohartu gaitezen globalizazioaren aurkako mugimendua bera ere globala dela, izan ere bere leloa “globalizazio *honen* aurka” da eta.

Adibide guztien artean Internet da gehien azpimarratzen duena, bai izan duen hedapen zabala eta arrakastatsua dela eta, zein eskaintzen dituen aukerengatik, eta berriro ere Giddens aipatu behar dugu: “Berriztapen uhin bakoitzean teknologia mediatikoen hedakuntza hazi egiten da. Estatu Batuetan irratia berrogei urte behar izan zituen 50 milioi entzule izateko. Ordenagailu pertsonala agertu eta hamabost urtera erabiltzaile-kopuru hori bera lortu zuen. Lau urte baino ez ziren behar izan, eskuragarri egin zenetik, 50 milioi estatu-batuarrek Internet erregulartasunez erabiltzeko”.¹³

Egile honentzat mundu global baten bizitzak zera dakar, inork ere ezin duela modernitateak sortutako erakundeen desiluzapenak sortzen dituen ondorio batzuetatik alde egin. Ondorio hauen artean daude, besteak beste, ekosistemaren arazoak¹⁴ (uraren urritasuna, batz besteko tenperaturen igoera, basoen galera...), istripu nuklearrak edota guda nuklearraren posibilitatea. Dena den, globalizazioa ez da prozesu bakarra eta sinplea, prozesu-multzo konplexua baino. Prozesuok, arestian ikusi dugun legez, modu bateratuan barik askotan modu kontrajarrian garatzen dira. Indar asko ari da “tiraka”, eta sarri-

¹³ Ibidem Giddens (1999) 24. or. UNDP Nazio Batuko Garapenerako Programako *Globalization with a Human face* izenpean Internetaren hedapena eta garrantziari buruz aritu zen 1999. urteko txostenean. Erakunde honen web helbidea, www.undp.org. Euskal Herriko datuak Eustateko data sarean ikus daitezke, www.eustat.es, Espainiakoak edota Europakoak euren datu saretan, www.ine.es eta www.epp.eurostat.ec.europa.eu

¹⁴ Ardura hauek bultzatuta, ura eta berotasunaren gainean egin ditu aipatutako UNDP-ek bere 2007ko eta 2008ko txostenak. Hauek ere ikusgai daude aipatutako webean.

tan noranzko desberdinetan: indar batzuk gorantz sakatzen dute eta Estatutik mundu-mailako erakundeetara pasatzen dute boterea, beste batzuk beherantzko presioa egiten dute eta ondorioz lekuan lekuko identitateak sortarazten dituzte, azkenik, badira alborantzko presioa egiten duten indarrak ere, eta hauek herrialde berean ekonomia eta kultura desberdinetako guneak sortzen dituzte¹⁵.

Aurreko lerroetan egoera deskribatu ondoren, gogoan izateko hiru ideia azpimarratu gura ditut. Ordenak garrantziarekin erlaziorik ez duela eta honako hauek dira ideioak:

- *Etorkizuna ez dago itxita*. Eztabaida dezakegu, esate baterako, ingeles hizkuntza benetan mundu osoan zabaldua dagoen ala ez, edo egotekotan ere, gizarte-maila guztietan berdin dagoen ala ez, baina edozein kasutan ere, horrek ez du esan nahi gaurko egoera betiko denik. Aipatu ditugu modernitatearen erreflexibitate eta zalantza garrantzia, eta hauek, beste zenbait eragileekin batera, egoeraren aldaketa eragin dezakete.
- Pertsona moduan, guk *kontrajarriak agertzen diren prozesuak aldi berean bizi ditugu*, eta alde bietan ditugu interesak. Pertsonok, aldi berean gara turistak eta leku jakin bateko biztanleak, atzerriko hizkuntza jakin gura dugu eta, era berean, ez dugu geurea (edo geureak) sentitzen duguna galdu gura.
- Prozesu hauen guztien *ondorioak ez daude berdintasunez banatuta*. U. Beckek arriskuari buruz esandakoa edozein ondoriotara

¹⁵ Idazlan honen azken ukipenak ematen nagoela, gaurko (2009-03-15) EL PAIS egunkarian arazo hauei buruzko artikulu bi agertzen dira. Baten Paul Krugman ekonomialariak zera dio: “EB sendotu egiten bada irtengo da Espainia kristik, bestela ez” 24. or. Eta bestean, zentzu ezberdinetako indarrei buruz, Joseph S. Nye-ek *Saretan lotutako buruzagiak* artikuluan egileak argi dio, batetik, munduko sare egiturak boterea kudeatzeko modu berriak eskatzen dituela eta, bestetik, kudeaketa honetarako beharrezkoa den informazioa ez datorrela goitik behera bakarrik. 29. or.

orokortu dezakegu, “Arriskuaren banaketaren historiak erakusten du arriskuak, aberastasunak bezala, eredu klasistari jarraitzen diola, baina alderantzizko noranzkoan: aberastasuna goian metatzen da, arriskuak, berriz, behean pilatzen dira. Zentzu honetan arriskuak klaseen gizartea deuseztatu ordeztatu, sendotu egiten dutela ematen du. Txirotasunak arrisku-kopuru altua zein zoritxarrekoa erakartzen du, eta aberastasunak aldiz (dela errentan, boterean zein hezkuntzan), segurtasuna eta arriskuengandiko askatasuna eros ditzake”¹⁶.

Amaitzeko, apur bat luzea bada ere, globalizazioak gutariko bakoitzarengan sortzen dituen noragabeko sentimenduak ondo deskribatzen dituen Giddens-en hitzak erabiliko ditut:

“Atal honetan deskribatu ditudan aldaketek, gauzatzen diren heinean, arinago ez zegoen zerbait eraikitzen dute: mundu mailako gizarte kosmopolita. Geu gara gizarte horretan bizi den lehenengo belaunaldia eta haren mugak susmatu baino ezin ditugu egin. Berdin da non gauden, gure bizimoduak aldatzen ari da. Ez da, momentuz behintzat, giza borondate kolektibo batek gidatutako mundu mailako ordena. Aldiz, modu anarkiko, zorizkoa, eragin multzo batek bulztatua ari da sortzen.

Ez dago ezarrita, ez eta ziurtatuta ere, urduritasunez eta banaketa sakonez markatua berriz. Gutako asko gure kontroletik guztiz kanpo dauden indarrek estututa sentitzen gara. Sentitzen dugun ezintasuna ez da gutxitasun pertsonalaren seinale, baizik eta gure erakundeen gutxitasunaren seinale. Birsortu egin behar ditugu, globalizazioa gaur ez baita baliogabeko eranskina gure bizitzetan. Gure bizitzetako baldintzen iraulia da. Gaur egun bizitzeko dugun modua da”¹⁷.

¹⁶ Ibidem, Beck, U. 1998. 35. or.

¹⁷ Ibidem. Giddens, A. 2000. 31. or.

3. MODERNITATEA, GLOBALIZAZIOA ETA IDENTITATEA

Zelan lotzen da aurreko guztia norberaren *ni*aren zentzuarekin? Identitate pertsonalarekin? Onartzen badugu *ni*a ez datorrela emanda baizik eta gizarteratze prozesuaren bidez, hau da, gizartearekiko, erakundeekiko, eta taldearekiko harremanetan eraikitzen dela, argi dago lehen aurkeztutako ingurugiroaren eta erakundeen aldaketek eragina izan behar dutela pertsonaren eraikitze prozesuan.

3.1. Gizabanakoaren aukera mundua

Ikusi dugu zelan ipintzen diren hankaz gora Modernitatean taldea eta pertsonen arteko harremanak, eta taldearen nagusitasunetik gizabanakoarenera pasatzen dela. Ohiturek eta tradizioek galdu egiten dute azalpenerako gaitasuna eta portaerak mugatzeko indarra. Hau guztia mundu mailan gertatzen da, eta gertatzen den heinean, gure identitate pertsonalaren oinarria –gure *ni*aren pertzepzioa– aldatu egiten da. Modernitatearen aurreko egoeretan *ni*aren pertzepzioa komunitateko gizabanakoaren lekuen egonkortasunean oinarritzen zen. Baina tradizioak indarra galtzen duenean eta bizimoduan aukeraketa nagusitzen denean, *ni*ak ere egonkortasuna eta ziurtasuna galtzen du. Identitate pertsonala lehen baino ahalegin handiagoz behar da sortu eta birsortu.

Gaurko gizabanakoentzat “*bizimodu*” kontzeptuak garrantzi berezia hartzen du¹⁸. Betiko erantzunek ez dute jada balio, lekua eta munduaren arteko harreman dialektikoak egunerokotasuna aldatzen du, aukera zabalagoak daude, pertsonak ez dira iraganaren arabera mugitzen baizik eta etorkizunaren arabera, eta etorkizuna, berriz, aldi

¹⁸ Giddensek (1995, 106. or.) hitz hauekin definitzen du bizimodua: “*Gizabanako batek, erabilgarritasun hutsagatik baino, bere izaera adierazten dutelako, bereganatzen dituen eta gutxi gorabehera gorpuztuta dauden jardueren multzoa*”

berean da ezezaguna eta ziurtasunik gabea, aurreikusi eta gauzatu beharreko aukeren esparrua.

Zelan bizi behar/gura dut? Horra hor gizabanakoak behin eta berriro bere buruari galdetu eta erantzun behar dion galdera. Zer jantzi, zer jan, zelan hitz egin, norekin egon, non eta zertan behar egin, nori eman botoa, zein erakundetan parte hartu, zelan gastatu dirua... *nor izan* azken baten, egunero erabaki beharreko galderak dira. Eta horiei erantzuteko kontuan hartu behar da, batetik, helmuga, lortu gura dena, bestetik *erreflexibitatea*, adituek irakatsi zein nork bere kabuz ikasten duena (puntu honetan gaur egun komunikabideen garrantzia ahaztu ezina da), eta azkenik, arriskuen neurketa, hau da, gogoen mugak non ezarri diren.

Hots, erabakiak hartzeko orduan ez dago erantzun finkorik, tradizioaren autoritatea galdu egin da eta ez da bere ordeztu berririk sortu, beldurra eta ziurtasun eza dira nagusi.

Baldintza hauetan ideia nagusi bi azpimarratuko ditut, batetik *plangintzarena* eta bestetik *niaren izaera aldakorra*.

Plangintzak lotzen du, batetik, etorkizuna aurreikusteko ahalmenarekin, eta bestetik, ezagutzaren eta aukeren arabera helburuak finkatzeko eta lortzeko ahalmenarekin. Plangintza honetan, beraz, etorkizunera begiratzea zein iragana irakurtzea, biak dira esanguratsuak. Iragana irakurtzeak ildo berean irautera bultza dezake, edota aldiz, hura errefusatu eta aukera berriak bilatzera. Are gehiago, eta hemen agertzen da aldakortasunaren berezitasuna, mundu modernoan ezagutza guztia aldi baterakoa denez, hau da, datu berriak jaso arteko ezagutza denez (gogora dezagun ziurtasunak desagertu direla eta zalantza dela nagusi), etorkizunaren irudia eta iraganaren irakurketa ere birdefinituak izan daitezke etengabe, eta euren gainean eraikitako bizitza-plangintza bera ere. Planteamendua irauliz gero, behin bizitza-plangintza finkatuta, berau justifikatzeko eta mantentzeko etengabe egin behar dira ahaleginak.

3.2. Erakundeak modernitatean

Orain arte esandakoek ez daramate pentsatzera gizabanakoak berak bakarrik bere bizitza konpondu dezakeenik, alderantziz, bizitza horretan parte hartzeko aukera duten instantziak areagotu egin direla. Zein da instantzia horien zeregina gizabanakoarekiko? Lehengo erakunde berberak dira gaur egun garrantzitsuak? Lehengo edukia dute?

Erakundeek lehengo izena gordeagatik balio berdina dutenik ukatzean bat datoz egile batzuk eta besteak. Tourainek zera diosku: “Erakundeek oraindik badaukate inposatzeko indarra, neurri handi baten bai, baina jada ez dute lehengo gizarteratzeko gaitasuna. Alde batetik, erakunde horiek ordezkatzeko duten kulturako partaide izate hutsak ez du jada erakartzen gizarte modernoko norbanakoa, baina bai aldiz zenbait produkturen erabilgarritasunak, eta produktu horiek sortzen dituzten merkatuen munduan bizi gara. Bestetik, gaur egun identitate askotara atxikitzen gara, dela etnikoa, sexuala, nazionala, erlijiosoa, lekukoa edo dena delakoa.”¹⁹.

Merkatuaren unibertsoaren eta identitatearen artean, lehen bizitza sozial eta politikoaren argi distiratsuak zeuden lekuan, gaur zulo beltz bat dago. Gizarteratzeari buruz, partekatze sozialari buruz zein partaidetza politikoari buruz hitz egitea ez dator bat gaur egungo gizarte esperientziarekin. Honek guztiak ikuspegia iraultzea dakar: erakundeek nortasun-mota bat sortuko duten ustearen ordez, nortasunari eskatzen diogu erakunde demokratikoak, bideragarriak eta sendoak egin ditzan”²⁰.

¹⁹ “Ni neu izatea egiten duena herri biren arteko mugan egotea da, bi edo hiru hizkuntzaren artean egotea, hainbat tradizio kulturalen arteko mugan egotea. Hori da, hain zuzen, nire identitatea definitzen duena”. Maalouf, A (1998): *Identidades asesinas*. Madrid, Alianza Editorial. 11. or.

²⁰ Ibidem Touraine, 1994, 275-276 or.

Modernitate goiztiarrean erakundeek, baldintza sozio-ekonomikoak aldatuz, pertsonak euren iraganetik askatzea bideratu behar zuten, baina gaur egun askapen hori bizitza-proiektu pertsonalen bidez egiten da, eta erakundeei eskatzen zaiena da proiektu horiek gauzatzeko bitartekak eskaintzea. Erakunde horiek irekiak dira, hau da, gizarte modernoetan erakundeetatik eta identitateetatik *irten* egin daiteke.

Egoera honetan baloreen gaineko gutxieneko adostasuna lortzeko eztabaida, arazotsua izan arren, ezinbestekoa da. Erakundeek ziurtatu behar dute, batetik, denontzako berdina izango den joko-zelai bat, eta bestetik, norberaren erabakiei mugak ezartzeko arauak. Arlo honekin lotuta dauden arazoei erantzuteko gutxienezko etika komunen beharra aipatzen da, eta horren adierazle, askoren ustez, Giza Eskubideak dira²¹.

Azken honen adierazle, zuzenbideko filosofo baten hitzak: “Kultura anitzeko gizarte batean gutxiengokoa izatea, errespetua eta bultzada bakarrik egin daiteke pertsonaren autonomiaren hastapenetik ondorioztatzen diren eskubideen baldintzarik gabeko gauzatzetik, hau da “eskubide liberalak” deituak izan direnen gauzapena, bereziki hauek “eskubide komunitarioak” edo kulturalekin topo egiten dutenean”²².

²¹ Gizartearen aniztasuna kontuan izanik, eta batez ere aniztasun horren barnean talde kultural ezberdinak daudenean, gutxieneko komun horri buruzko eztabaida luzea, eta kasu batzutan gogorra, gertatzen ari da. Horietako hiru aipatuko ditut, izan duten entzute handiaren izenean, hala nola Kymlicka, W. (1996): *Ciudadanía multicultural*. Barcelona, Paidós; Sartori, G. (2001): *La sociedad multiétnica*. Madrid, Taurus; Taylor, Ch. (1993): *Multiculturalismo y la “política del reconocimiento”*. Mexico, Fondo de Cultura Económica. Erljioaren aniztasunaren ikuspegitik, berriz, Küng, H. (1991): *Proyecto de Ética Mundial*. Madrid, Trotta

²² Vazquez, R. (2006): *Entre la libertad y la igualdad. Introducción a la filosofía del derecho*. Madrid. Trotta. 162. or. *Autonomía* hastapena honela defini daiteke: “Gizabanakoek eskubide berdinak izan beharko lituzkete (eta obligazio berdinak beraz) euren esku dauden aukeren testuinguruan, hau da, euren bizitzan baldintzak ezartzeko aske eta berdinak izan beharko lirake, testuinguru hau beste batzuen eskubideak ukatzeko erabiltzen ez badituzte”. Held, D. (1991) *Modelos de democracia*. Madrid, Alianza Editorial. 399. or.

Puntu hau amaitzeko, berriz ere Giddensi emango diot hitza:

“Menpekotasuna eta autonomiaren arteko gatazka globalizazioaren mutur batean dago, eta beste muturrean, jarrera kosmopolita eta fundamentalismoaren arteko topeka. [...]”

Munduan gertatzen diren aldaketa guztien artean bat ere ez da gure barne-bizitzan gertatzen direnak baino garrantzitsuagoa –sexualitatean, harremanetan, ezkontzan eta familian–. Gure burua ulertzeko modua zein besteenganako loturak eta harremanak sortzeko moduak biltzen dituen mundu mailako iraultza dago martxan. Lurralde eta kulturen arabera hainbat modutara egiten du aurrera, eta erresistentzia ugari aurkitzen ditu bidean”²³

4. AURREKO GUZTIA ETA EUSKERAREN ERABILERA

Heldu da, bada, aurreko guztia gure eztabaidarako gai nagusian aplikatzeko ordua. Puntuz puntu, ideia nagusi bat argitzen ahalegin-du naiz, alegia, gaurko egoera berria dela munduko pertsona zein herri guztientzat, eta lehengo izen berdinekin deitu arren, atzoko erantzunek ez dutela gaurko balio. Laburbilduz, gogoratu dezagun: espazio eta denboraren arteko ohiko lotura apurtu egin da; taldeak barik pertsonak du garrantzia, eta honekin lotuta, taldearenganako betebeharren ordeztu pertsonaren eskubideak azpimarratzen dira; iraganak baino, etorkizunak eratzen du gure bizitza; bizitzaren zentzua norberak erabaki behar du, dauden aukeren artean aukeratuz edota berriak sortuz; iragana, zalantza eta ezagutzaren berrazterketa dira nagusi, iragana eta etorkizunaren arteko lotura (bizitza-plana) eta hartutako erabakiak etengabe sortu eta eraberritzeko aukera... eta guzti hau aitortzen zaio, ez pertsona gutxi batzuei, baizik eta munduko gizabanako bakoitzari. Modernitatearekin, beraz, Euskal

²³ Ibidem Giddens, A. 2000, 65. or.

Herrian herri asko daude, eta era berean Euskal Herria edozein lekutan egon liteke. Ez dago euskerarena bakarrik den lekurik, baina mundu osoa da euskeraren lekua.

4.1. Ekonomia arlotik erakarritako ideiak: Etorkizuna aurreikustea eta Berriztapena

Peter M. Sengeren esaldi batez eman diot lan honi hasiera, eta orain ia-ia amaitzeko gaudela, berreskuratu gura dut bere hitzaldia, egoera berrien aurrean enpresen munduko adituek proposatzen dutena aurkeztuz.

Adituen esanetan erakundeek gero eta arazo gogorragoei egin behar diete aurre, hiru konplexutasun mota gero eta nabarmenago ageri direlako²⁴:

- Konplexutasun dinamikoa: kausa eta ondorioa urrun daude, denboran eta espazioan.
- Konplexutasun soziala: hainbat interes-talde, agenda eta munduaren ikuskera desberdinak dituztenak.
- Konplexutasun generatiboa: etengabe ari dira sortzen errealitate berriak, iraganeko irtenbideekin erantzun ezin direnak.

Hiru konplexutasun hauek parekotasun handia dute, berdinak ez diren arren, lan honen hasieran emandako kontzeptuekin: espazio-denbora loturaren apurketa, erakundeen desiltzapena, eta erreflexibitatea.

Halako arazoen aurrean, “arazoak konpontzearen” kontzeptua bera oztopo izan liteke. Apurtuta dagoen zerbait konpondu behar

²⁴ Senge, Peter M. (2003): “Creating desired futures in a global society”. Honoris Causa Doktore izendatzeko ekitaldiko hitzaldia. Bilbao. Deustuko Unibertsitatea. 38-42. orrialdeetan Adam Kahane-renak dira ideia hauek eta garatuago aurki daitezke 38. eta 42. orrialdeetan.

dugula pentsatzera eraman gintzake, iraganeko konponbideak inposatzera eta errealitatea aurkakotzat hartzera, aldekotzat barik. Baina horietako ezer ez da gertatuko “arazoak konpontzea” prozesu zabalago baten barruan ikusten *baldin badugu*, alegia, nahi duguna sortzeko prozesuaren barruan.

Nahi duguna sortzeko prozesua arrakastatsua izan dadin hiru printzipio hartu behar dira kontuan:

- *Sortzea eta arazoak konpontzea ez dira gauza bera.*

Sortzea eta arazoak konpontzearen arteko desberdintasun nagusia sinplea da. Arazoak konpontzean gogoko ez dugun zerbait desagerrarazten saiatzen gara. Sortzean, berriz, benetan ardura digun zerbait existitu dadin ahalegintzen gara.

“Eta zer sortu nahian gabilta?” galderaren aurrean inork ez badauka ganorazko erantzunik, nekez jakin dezakegu benetan zer ardura duen arazoak konpontzeak.

- *Ikuspegiaren eta errealitatearen arteko tartea sortze prozesuaren eragile da.*

Sortu nahi dugun zerbait pentsatzen dugunean, existitzea nahi dugun zerbait irudikatzen dugu, etorkizunaren irudikapen bat, aurrean ikusten duguna ez bezalakoa. “Tentsio estrukturala” esaten zaio, eta tentsio horri irtenbidea eman dakiok, gure irudikapena gauzatzeko ekintzara joz²⁵.

Haatik, irudikatzen dena eta errealitatearen arteko tentsioa deserosoa izan daitekeenez, sarritan saihezbideak bilatzen ditugu. Tentsioa gutxitzeko saihezbide bat da gure ikuspegia murriztea,

²⁵ Francisco Luzón: “La banca en tiempos del cólera” Hitzaldia. Deustuko Unibertsitatea, 2009-03-04. Hizlariak honako hau esan zuen: “Krisiaren aurrean zer egin? Aurrea hartu, pentsatu nolako eszenatokia egongo den krisia amaitzean eta prest egon horretarako”

gure ametsak alde batera uztea eta “helburu errealista bati” heldzea. Honek gure deserosotasuna gutxitzen du, baina era berean gure sortzeko indarra ere gutxitzen du. Bigarren saihebidia are kezkarriagoa da: uneko errealitateaz egirik ez aitortzea. Sortze prozesuko indarra, irudikatutakoari eutsiz eta baita errealitateaz egia esanez ere askatzen da. Ausardia eskatzen du baina emaitza esanguratsuak lortzeko bide bakarra da.

- *Gure mugak ezagutzeak sortzeko bideak zabaltzen dizkigu*
Maisua eta hasiberria bereizten dituen gauzetako bat da inguruaren mugak aintzat hartzea. Gero eta gehiago, sormena sustatuko duten mugak gero eta elkarren menpekoagoa den mundu honetako ingurugiro eta gizarte errealitateak aintzat hartuta etorriko dira. Hala eta guzti ere, jeneralean, ez gara gai muga horiek ikusteko, ez garelako gauza muga horiek sorrarazten duten elkarrekiko menpekotasuna ikusteko. Ezintasun hau gainditzeko ezinbestekoa da pentsamendu sistemikoa lantzea.

4.2. Zer egin euskeraren erabilera bultzatzeko? (hau da, zer egin euskeraren biziraupena segurtatzeko?)

Gustukoa izan ez arren, beharbada lehenengo ideia zera da, sortzen diren gauza guztiak amaitu ere egiten direla eta pertsonok egunen baten desagertuko garen bezala euskera ere desagertu egingo dela.

Bigarren gauza, hau ere entzun gurako ez genukeena, modernitatearen seme-alabak legez, guk geure aukerak egiten ditugula baina etorkizuneko pertsonak eurenak egingo dituztela eta, horiek beraz, ezin ditugula ziurtatu. Zalantza eta arriskua modernitatearekin batera doaz.

Aurreko ebidentziak onartuta, galderak, enpresetako adituei jaramon eginez gero, hauek izango lirateke: Zer etorkizun gura dugu?

Zer daukagu (edo non gaude, zeintzuk dira gura abantailak eta desabantailak)? Zeintzuk dira gure mugak? (testuinguruak ipintzen dituenak eta baita guk geure proiektuari ipintzen dizkiogunak ere).

Diskurtsoaren puntu honetara iritsita, espero dut zuetako bakoitzak ideia piloa izan dezala aukera ezberdinei buruz, baina denak aztertzea ezinezkoa denez nik eztabaidarako puntu batzuk aurkeztuko ditut hemen.

Zer etorkizun gura dugu²⁶ orokorrean?

Euskeraren jatorrizko lurraldeko biztanleak modernitatean murgilduta daude gaur egunean. Internet hedatuta dago eta normaltasunez erabiltzen da, (izatez gazteek arazoak dituzte, esaterako, lan bat egiteko orduan, liburutegian liburuak kontsultatzeko, web orrietara joateko ohitura “naturalagoa” dutelako). Hezkuntza maila altua daukagu. Dibortzio tasak altuak dira, onartu egiten dira sexu bereko ezkontzak, ezkondubariko amak, ezkontza mistoak, bikoteen zein banakakoen adopzioak, odol-emaileen kopuru handia dago, baita organo-emaileena ere, ONG/GKEtan parte hartzeko joera dugu, bidaiazaleak gara, ikastoletan hezkuntza hirueleduna dugu eta askotan beste herri batzuetako ikasleekin trukeak antolatzen dira, gure enpresak mundu osoan sakabanaturik daude, teknologia berrietako industria-guneak bultzatzen ditugu, ikerketarako erakundeak berriztapena bultzatzen dute... zenbat sare daude guzti honetan inplikaturik? Zenbat hizkuntza? Zenbat aukera zabaltzen zaizkie hiritarrei?

²⁶ Baten batek planteatu dezake *zer etorkizun gura dugunari* buruz galdetzea, hau da *Gu* kategoria erabiltzea, modernitate aurreko ardura edo arrasto baten adierazlea dela. Argi egon behar da modernitatean *Guak* segitzen dutela garrantzitsuak izaten baina aldeztatik ezarritako partaidetzan oinarrituta egon ordez, borondatezko partaidetzan oinarritzen dira. Taldeetatik ateratzeko eta sartzeko aukerak egon behar dira.

Aipatu ditudan berezitasun bakoitzak gogoetarako aukera ematen du. Adibidez, har ditzagun ezkontza mistoak eta dibortzioa: zenbat hizkuntza aurki daitezke bi edo hiru ezkontza mistoen ondoko gazte baten familian? Egoera hauek gero eta maizago aurkituko ditugu, gainera, migrazioen garrantzia kontuan izanik inplikaturata gerta daitezkeen hizkuntzak ere asko izango dira.

Aurrekoarekin lotuta, oso kontuan hartzekoa da pertsonen mugimenduek sortzen duten eraginaren garrantzia. Immigrazioaren Euskal Behatokiak immigranteen hizkuntzak aztertu ditu eta datu harri-garriak eman ditu. 2007ko errolda-datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Erkidegoan bizi diren atzerritarren kopurua 150.000 baino apur bat handiagoa da, 170 estatutik etorri dira eta 100 hizkuntza baino gehiago dakizkitez. Gainera hizkuntza horietako asko hitzunen eguneroko komunikazio-tresna lez erabiltzen dira²⁷.

Kontuan hartzeko beste ezaugarri bat gizartearen adin-piramidearen garapena litzateke. Euskal Herriko jaiotze tasa oso baxua da, baina era berean bizitza itzaropena sano altua, eta ondorioz, pertsona adinduen ehunekoa biztanlerian handitu egiten da. Ezaguna denez, honek gizarteari hainbat eskakizun eta beharrian sortzen dizkio. Orain arte gure hizkuntza-politikak, hein handi batean, gazteengan finkatu dira. Horrela segitu beharko luke izaten?

Pertsonen mugimenduak, aniztasun kulturala, adinekoen nagusitasuna... guzti honekin lotuta, galdetzeko eta ikertzeko beste arlo bat ezberdintasun sozio-ekonomikoarena izango litzateke. Zeintzuk dira mailaketa sozialaren aldaera nagusiak?, zeintzuk dira higikor-

²⁷ Immigrazioaren Euskal Behatokia, "Hizkuntzak eta immigrazioa", IMMIGRAZIOARI BEGIRADA, 2008ko abendua, 25. zk. www.ikuspegi.org Gai honen inguruan ere, *Etorkinak eta Hizkuntza-ereduak*. Soziologiako Euskal Koadernoak. Eusko Jaurlaritzak. 20. zbk. 2006.

tasunaren *ethosa* eta hitzunen aukera linguistikoaren arteko loturak?

Orain arte euskera esparru guztietara eraman gura izan dugu eta euskeraz bizitzeko eskubidearen alde agertu izan gara. Honekin lotuta euskal hitzunen kopurua handitzearen alde agertu gara. Gure mugak eta indarrak kontuan izanda, etorkizunean bideragarriak dira asmo hauek? Elebitasuna elebakartasun biren arteko aldi baterako tartea da benetan? Gure etorkizuna elebakarra izatea gura dugu? Eta elebakarra ez bada, zelan lotzen da eleaniztasuna (barkatu hitz-asma-kizuna) “*esparruguztitasuna*” rekin? Birpentsatu beharko genuke (erreflexibitatea) diglosia kontzeptua? Birpentsatu beharko genuke zein den erabilera iraunkorragorako behar dugun hiztuna?

Txepetxek hauxe idatzi zuen, duela urte batzuk: “Hemen azaltzen dugun ideia da berezko espazio sinbolikoa dela hizkuntza baten bizitasuna edo ahulezia baldintzatzen duena, eta berezko espazio horrek sortzen du hori, bertan dauden hitzunen atxikimendu zuzena munda irakurtzeko erabiltzen duten hizkuntzarekiko eta, kanpoan dauden hitzunengandik zeharkako atxikimendua, kanpoko espazioak barrukoez bazkatzen dira eta prozesu honetan urardotzen badu ere. [...] Zentzuzko hastapena legez onartu daitekeen bakarra da gizabarnako batek bere buruaren edozein motatako interpretapena bideratu duen hizkuntzarako duen baldintzarik gabeko atxikimendua. Ez badago euren hizkuntza funtsean horrela ulertzen duten subjektugunea, eta egonda ere gune hori igortzen ez bada, sendotasuna galduz doa, ezinezkoa da gaur eguneko edozein hizkuntzaren, berdin mardula zein ahula, biziraupena ziurtatu”²⁸.

²⁸ Sanchez Carrión, J. M^a. (1981): *El espacio bilingüe. Aspectos etnolingüísticos del bilingüismo y teoría lingüística de los espacios*. Burlada-Navarra, Eusko Ikaskuntza. 31-37. or.

Hau horrela izanda, ez litzateke komenigarriagoa izango atxikimendua lantzea? Eta zelan landu atxikimendua *niaren* eraikuntza gizabanakoaren aukeraketan finkatuta badago?

Zelan atera daukagunari etekin handiagoa?

Daukaguna zer den eztabaidatu beharrean, beste galdera bat egingo dut, ustez zehatzagoa: zelan areagotu euskeraren ikusgarritasuna? (azken baten ikusten/ezagutzen dena baino ezin da bizitza-plangintza baten sartu gura izan). Eta puntu honetan bai, hiru arlo aipatuko ditut: unibertsitatea, komunikabideak eta munduan zeharko euskaldunak.

Unibertsitatean eta komunikabideetan, hizkuntza biak bananduta mantentzearen alde agertu izan gara eta egokia al da planteamendu hau? ETB1en euskeraz egiten duenak, zergatik egin behar du gaztelez segituan ETB2rako? Zergatik ipintzen zaio ETB1en gaztelez egiten duenari euskerazko ahozko edo idatzizko itzulpen bat eta ez zaio gauza bera egiten ETB2an euskeraz egiten duenari? Euskeraz egin nahi duenari egiten utziz gero ETB2ren ikusleak argiago izango luke arlo guztiko jendeak egiten duela euskeraz eta, beharbada, zentzu gehiago ikusiko lioke ikasteari edo hitz egiteari.

Egunkarietan eta aldizkarietan ere ale elebakarrak eta ezberdinak izan dira nagusi. Izatez, hedabide batek hizkuntza biak erabili izan dituenean txarto ikusia izan da, benetako konpromisoa hartuko ez balu bezala. Hala da? Benetan da aukerarik onena?

Unibertsitatean arazoak eta zalantzak antzekoak dira: zelan lortu agerpen handiagoa? Zelan sortu atxikimendua? Hitzun talde ezberdinak bananduta egon behar dira? Bikoiztu egin behar dira gai guztiak? Ikasliburu guztiak euskaratu behar dira? Hitzaldien izenburuak itzuli egin behar dira? Zein da nazioartekoa izan gura duen unibertsitate

baten hizkuntza-politkarik egokiena? Hasiak gara jadanik ikastaroak eta masterrak euskera edo gaztelania ez diren hizkuntzetan ematen eta laster guztiz normaldua egongo da. Horrek hezi egingo ditu gure ikasleak hirugarren edota laugarren hizkuntzetan, baina hori beste helburu bat da eta, gutxienez, Europa barruko ikasleen mugimendu zabalago bat sortuko du, ez diegu eskainiko nazioarteko ikasleei euskeraratzeko aukerarik? (azken galdera hau etorkin guztiei aplikatzen da).

Azken arloa munduan zehar dauden euskaldunena da. Egia da Eusko Jaurlaritzak Euskal Etxeak babesteko programak dituela eta unibertsitate batzuetan euskeraren katedrak edota Euskal Ikasketen Departamentuak daudela, baina ezin dugu imajinatu sare ikusgarriago baten ipintzeko modurik? Eta gu euren sareetan ikusgarriago agertzeko modurik? Badakigu zer den eurek nahi dutena? Entzuteko prest gaude? Nire inpresioa da gure ustez geu garela euren erreferentzia baina, zergatik ez dira eurak geurea izango? Azken baten eurentariko askok ikasi du identitatea eta hiritartasun ezberdin bat eraikitzen, modernitatearen desafioak bizi izan dituzte, eta erantzun egin diete (aldez aurretik emanda ez zegoen etorkizun bat eraiki dute, iraganaren berrirakurketa eginez).

Euskera eta Euskal Herria banatzen ikasi beharko genuke?

Segituz gero amaigabeko galdera-zerrenda osatuko nuke. Behar bada horrenbeste galderaz etorkizunari buruz ezkor agertu naiz, baina ez da horrela. Aukerak daudela uste dut, eta baita egiteko gogoia eta gaitasuna dugula ere, baina egin egin behar da, etengabe, zalantzak etengabe ere agertzen direlako eta, jakina, xakean bezala, argi izanda irabaziak beti galerak dakartzala.

Azken baten modernitateari buruzko teorikoak ere baikor agertzen ari dira, esaten dutenean etorkizuna aurreikustea dela hura gauzatzeko lehenengo pausoa. B. Andersonnek dioenez, "Izatez, harreman

zuzeneko herri txikiak baino komunitate handiagoak denak dira imajinatuak (eta agian txiki horrek ere bai). Komunitateak bereizteko irizpidetzat ez da euren faltsukeria edo legitimitatea hartu behar, baizik eta imajinatuak diren estiloa”²⁹.

Euskal Herria deitzen dugun lurralde honetako biztanleok modernitatearen kontraesan guztien adierazle gara, zalantza guztien adierazle, ezintasun guztien adierazle. Hain zuzen, kopuruz txikiak eta botez eszentrikoak, baina esperantzaz handiak garelako eredugarri izan daitekeen euskal bizitza esparru eredugarria imajinatu eta eraikitzeko aukera dugu.

Imajina dezagun!

²⁹ Anderson, B.: (1993): *Comunidades imaginadas. Reflexiones sobre el origen y la difusión del nacionalismo*. Mexico, Fondo de Cultura Económica, 23-24. or.

